

Gure proiektuaren izena Xagu deitzen da eta enpresaren izena berriz, Inela da. Guk sortutako produktua kondoi bibradore bat da. Antisorgailu bat da, sexu harremanetarako edo masturbaziorako aparatu ederra da.

Gure balioetako bat nobedadea da ; ez da kondoi arrunt bat baizik eta kondoi bibradore bat horrela antisorgailu bat izateaz gain masturbaziorako jostailu iraultzaile bat bihurtu dugu.

Beste balioetako bat gehitutako prestazioa da, hau da, kondoiari bibrazioa gehitzea.

Balio pertsonalizazioa ez da gure helburu nagusia baina agian kontuan hartu beharko dugu etorkizun batean (kolore ezberdinak aukeratu, tamaina...)

Lana erraztea gure beste balio garrantzitsuenetako bat da. Esaterako, bi produktu erosi beharrean (kondoa eta eraztun- bibradorea) bakarra erostea. Horrek plazerra areagotzen du.

Zentzu estetikoaz ari garenean behintzat diseinua asko hartu dugu kontutan baina ez da izan gure lehentasuna

Prezioak izugarriko garrantzia du gure proiektuan. Inportantzia handia du merkatuan. Guretzako kalitatea prezioa baina garrantzitsuagoa da, hori dela eta, kalitate-prezioa ekuazioan ahalik eta parekoen izaten saiatuko gara.

Arriskua murriztearen balioa beste puntu garrantzitsuenetako bat da. trasmisio sexualaz babesten gaitu, hau da, GTSaz konkretuki.

Gure beste balio bat erakargarritasuna da hau da, plazerra. Leku guztietan jarriko dugu eskuragarri baina gomendagarria da 15 urtetik gorako testuinguruan beti ere.

Azkenik, beste balio bat erabilgarritasuna da. Gure produktua oso erabilgarria da. "Edozeinek" eta edonon erabil daiteke.